

TALAIAN

## Isilpeko datu fiskalak pribatuen esku

Lantik, Bizkaiko Ogasun departamentuaren menpeko enpresa publikoa, orain arte egiten zituen lanak azpi-kontratatzan hasi da. Lan horiek joan den astelehenan abiatutako 2007ko errenta aitortpenaren inguru-koak dira. Ondorioz, sozietate anonimo bat, inolako kontrol publikorik gabea, arduratuko da telefonoz informatzeaz eta aitortpenak grabatu eta eskaneatzeaz. Horretarako, enpresa pribatuak sarbidea izango du Ogasuneko datuetara, hau da, Bizkaiko zergadunen informazioa biltzen duen datu-basera. Duela gutxi arte lan horiek Ogasuneko langileek burutzen zituzten, gero Lantik enpresak egin zituen epealdi baterako langile prekarioen bidez. Orain, Bizkaiko Foru Aldundiak pauso berri bat eman du eta zergadun guztien isilpeko informazioa enpresa pribatu baten esku utzi du. Ez da lehen kasua, hiri katastroarekin eta ekintza sozialekin lotutako gaiak ere enpresa pribatuek kudeatzen baitituzte.

Gauzak foru erakunde horretako LAB sindikatuak salatu bezalakoak badira, oso kontu larria da. Eta ahal-dun nagusiak azaldu beharko luke. Izan ere, zergadunen isilpeko informazioa enpresa pribatu baten esku utzi da eta inork ez daki zertarako erabil litezkeen datu horiek. Nork eta nola kontrolatzen du hori guztia? Gainera, enpresa horiek denboraldi baterako langileak kontratatzen dituzte, prekariedade egoeran. Eta hori gobernuko alderdi politikoak zerbitzu publikoak pribatizatzeke duen politikaren ondorio da. Diru publikoarekin ez da jolasten. Ez dezatela gure diruarekin lana are prekarioago bihurtu.

Juan Mari Arregi

## Henrike Knörr hil da

**APIRILAREN 30EAN** hil zen Henrike Knörr (Tarragona, 1947) euskaltzain osoa eta filologoa minbiziak jota. Tarragonan jaio arren zazpi urtez geroztik Gasteizen bizi izan zen. Euskaltzaindiako Iker sailburua zen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologiako katedraduna 1995az geroztik.

## “Euskara 21” ekimena abian da

**EUSKO JAURLARITZAKO** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatutako Euskararen Aholku Batzordeak jarri du abian *Euskara 21* ekimena. 40 lagunek osatutako taldearen helburua XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak finkatzea da. Taldearen funtzionamendua errazte aldera zazpi laguneko batzorde iraunkorra osatu dute. Ekimen horren berri izateko webgunea ([www.euskadi.net/euskara21](http://www.euskadi.net/euskara21)) jarri du abian HPSk. Webgunean oinarritzko txostena dago, gogoetan parte hartu ahal izateko bloga eta gogoetaren inguruko berriak segitzeko modua. Oinarritzko txostenaren egileak dira honakoak: Patxi Baztarrika eta Erramun Osa (Hizkuntza Politikarako sailburuordetza), Aurelia Arkotxa, Lore Erriondo, Alberto Lopez Basaguren, Eneko Oregi eta Pello Salaburu.

BAHEA

Txerra Rodriguezek *Garaigoikoa* blogean esanak:

“*Berrian* Aitzol Altuna soziolinguista handiak esan zuen euskarak gaelikoak baino etorkizun txarragoa duela. No eta to. Iragarle eta soziolinguista den Aitzol ‘historialaria’k hori dino, zergatik eta gaelikoak euskarak baino indar politiko gehiago ei duelako?

Familia transmisioa, kale erabilera, komunikabideetan presentzia, ... eta horren moduko adierazle soziolinguistikoez ez dute deus ere balio, boterea da gakoa.

Tumatxa hi, luzitu haiz. Ez bizitasun etnolinguistikoa, ez ostiarik. Irlandarrak ondo doaz eta gu konturatu ez. No eta to, ostera ere”.

**Txapela buruan**  
to ibili munduan

**Narrika, 18. Donostia**  
telf. 943428299 [www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)